

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ATAURIKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Jendaurrean jartzea etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren errolda, eta borondatezko epean kobratzeko moduan jartzea 2022-2023ko ordainagiriak

Behin eginik Ataurin etxeak edateko urez hornitzearen eta saneamenduaren tasaren 2022-2023ko errolda, jendaurrean jarriko da hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Interesdunek Atauriko (Araba) Administrazio Batzarraren kontzeju aretoan azertu ahal izango dute espedientea.

Ediktu honen bidez, halaber, erroldaren barruko likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorri Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 98.3 artikuluan xedatutakoarekin.

Jendaurrean jarriko diren erroldetan jasotako likidazioen aurka, berraztertzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio errejidore-lehendakariari, hilabeteko epean, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera. Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak direnez, ordaintzeko borondatezko epean ere jarri ahal izango da errekurtsua, edo hura amaitu eta hurrengo egunetik hilabete igaro baino lehen.

Borondatezko epean kobratzeko aldia 2024ko apirilaren 29tik maiatzaren 29ra artekoa da, egun biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta daukatenei 2024ko apirilaren 29an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideraturik ez daukatenek Kutxabanken bulegoetan ordaindu beharko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo Vitalneten. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo du administrazio batzarrak.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Atauriko Administrazio Batzarrak zuzenean kudeatuko du zordunketa, ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epea amaitu eta diru sarrerarik egin ez bada, premiamendu bidez kobratuko da, dagokion errekaru eta guzti, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Atauri, 2024ko apirilaren 8a

Lehendakaria

MIKEL RUIZ BALSATEGUI